



Programazioaren aurrerapena Bigarren Mendeurrena 1813-2013

Egitasmo kolektibo bat



"Donostia", egile ezezaguna, XIX. mendea





“1813ko abuztuaren 31n, Donostiari su eman eta hiria txikitu zuten Ingalaterrako eta Portugalgo soldaduek; XIX. mendearen hasieran, Europa suntsiturik utzi zuten Napoleonen garaiko gerrek ekarri zuten gertakari tragikoetako bat izan zen. Zubietan, Aizpurua baserrian, elkartu ziren donostiar haiek hiria berreraikitzeke erabakia eta kemena izan zuten, eta, horri esker, urteek aurrera egin ahala, Donostia handituz eta aldatuz joan da”.

“Bigarren mendeurrenak balio behar du 1813an egitan zer gertatu zen oroitzeko, bat egin behar ditu hiriaren iragana, oraina eta etorkizuna, eta kohesio, ilusio eta harrotasunerako baliabide izan behar du donostiar guzti-guztientzat”.

“Aukera paregabea da Donostiaren irudia hemendik kanpo proiektatzeko, aukera paregabea oroitzapen-ekitaldiak bertako ekonomia suspertzeko motor bihurtzeko, hiriko merkataritza, turismo eta kultura alorrean aberastasuna eta enplegua sortzeko, aukera paregabea funtsezko mugarri izateko 2016an Europako Kultura Hiriburu izatera eramango gaituen bidean”.



Bigarren Mendeurrenaren programazioaren aurrerapena

Bigarren Mendeurrenaren programazioa lankidetzan egindako proiektu kolektibo eta parte-hartzaile baten emaitza da. 88 elkartek, erakundek udal sailek, herritarrek eta instituziok diseinatu dute, Donostiako Udalari 390 proposamen aurkeztuta.

Proiektu eta ideioekin, Donostiako Udalak, Bigarren Mendeurrenaren Batzorde Teknikoaren bitartez, Batzorde Ez Iraunkorrean ordezkaturiko udal talde politiko guztiek eta hainbat udal sailek elkaturik lan egin dute, ilusioz eta ahaleginez, proposamenak partekatu dituzten pertsona eta kolektibo guztiekin harreman estuan, lan egin ere. Halatan, herritarrek goitik behera ideiatutako programa bat osatu da. Inor ordeztu nahi ez duen programazio bat da, bada; aitzitik, kasu batzuetan urtetan eta urtetan hainbat lagunek eta elkartek egindako lana indartu nahi du eta, batez ere, herritarren kezkei eta galdekizunei erantzuna eman.

Urte osoan zehar hedatzen den programa bat da, hilabeteka banatutako "mugarri" edo une gailenek gidatzen dutena, eta xumeagoak izan arren herritarrek proposatu dituztenez garrantzi bera duten beste hainbat aktibitatek zipriztintzen dutena.

Programazioaren "mugarriek" eta oroitza egiteko ardatzek bat egiten dute. Honako hauek baitira helburuak: ezagutaraztea, gogoratzea, oroitza egitea eta eraikitzen jarraitzea.

Hortaz, bere baitan hartzen ditu 28 kontzertu (hauetako 18 Santa María Basiliko organo kontzertuak), dantza-emanaldi, herritarren arteko 16 topaketa eta hitzaldi, hainbat argitalpen eta literatura-ekimen, bisitaldi gidatuko 6 ziklo, 12 erakusketa, ikus-entzunezko 6 emanaldi, 5 omenaldi, hainbat

aktibitate gastronomiko, 3 kirol-jardunaldi, 3 antzezpen eta berregintza historiko... Honez gain, jaiei lotutako hainbat aktibitate antolatu dira. Batzuetan, gure urteko egutegia osatzen duten festak eta jaialdiak goratzen dituzte, haien balioa agerrarazita edo beren baitan txertatuta: Aste Nagusia, Euskal Jaiak, Inauteriak, Danborrada, eta abuztuaren 31n egiten den oroitza bera. Beste batzuetan, gure hirian inoiz egin ez diren ekinbideak dira, Bigarren Mendeurrenaren oroitza egiteko berariaz sortuak.

Guztiak, donostiarrak izan, turistak izan, beren txokoa aurkituko duten aktibitateak dira. Pertsonak pertsona guztientzat egindako programa delako. Izan ere, Bigarren Mendeurrenaren hainbat diziplina eta aktibitateetan bildu dira eta islatu dira jasotako ideien eta proiektuen %80 baino gehiago.

Programazio honek, bada, ez du inor ordeztu nahi, zenbait kasutan hainbat elkartek eta lagunek urtetan egin duten lana indartu baizik.

Bigarren Mendeurrenaren oroitza honek oinarri dituen balioak agerrarazteko, aktibitate hauek guztiek zehar-ardatz berberak dituzte: partaidetza, euskara, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, kontsentsua, zeharkakotasuna, europar dimentsioa eta belaunaldiartekotasuna.

Hilabete bakoitzeko "mugarriak" eta ekinbideak arian-arian zehaztuko dira, zeren eta, Bigarren Mendeurrenaren leloari jarraiki, programa honek "eraikitzen jarraitzen" baitu, egunero biziberritzen delarik.

Hona hemen, hilabeteka, aktibitate nagusiak.

URTARRILA

1813-2013 Bigarren
Mendeurrenaren
oroitzaren hasiera

Mugarria: urtarrilaren 19a



Urte osoan egingo dira Bigarren Mendeurreneko ekitaldiak, eta hasiera Donostiako ekintzarik maitatuenetako eta partaidetza handieneko batekin etorriko da: San Sebastian egunaren ospakizunarekin

Danborraden omenaldia herritarrei San Sebastian bezperan

Urtarrilaren 19an, eguerdiko 12etan, Alderdi Ederren, helduen eta haurren konpainietako mila danborrarik baino gehiagok Jose Juan Santesteban maisuak bildu eta danborradetarako moldatutako "Donostiako Antzinako himnoa" joko dute, Txistularien Udal Banda lagun dutela. Donostiako Martxa zen 1813an eta gaur egungo hiria posible egin duten herritarren omenez interpretatuko da. Parte-hartzaileei Bigarren Mendeurrenaren **oroigarri** bana emango zaie.

Dantza

Aiert Beobidek eta Onintza Odriozolak, beste sei dantzarekin batera, beren gorputzez interpretatuko dute donostiarren egunik maiteenarentzat berreskuratutako himno hau.

Alkatearen bandoa

Donostiako alkateak, Juan Karlos Izagirrek, ekitaldiari hasiera emango dio Bigarren Mendeurrenaren espirituari buruzko bando bat irakurriz.

Urtarrilean honako aktibitate hauek ere egongo dira:

Liburuaren aurkezpena

Kutxa Fundazioak argitaratutako Rafael Aguirre Francoren "Efemerideak: hiriaren sutearen eta berreraikuntzaren bigarren mendeurrenean" liburua Doctor Camino Liburutegian aurkeztuko da.

Kontzertua

"San Sebastian aurreko kontzertua", Donostiako Txistularien Udal Bandak eta Eskola Gurutzia Abesbatzak eskainia, Pleno Aretoan. Raimundo Sarriegiren eta 1813ko sutearen omenez eta oroimenez.

OTSAILA

XIX. mendea gogoratuz

Mugarria: otsailaren 8a

Otsaila da Donostiako Inauteriaren hilabetea (otsailaren 7tik 11ra). 2013an erritmo eta zapore berezia izango du, nolabait XIX. menderaino eramango gaitu eta. Inauteria ongi pasatzeko garaia da, bai eta historia era jostagarrian ezagutzeko eta gogorarazteko garaia ere. 1813koa bezalako gertakari tragiko batek behar duen zorroztasun historikoa eta gizatasuna ahaztu gabe, betiere.



Napoleonen garaiko merkatua inauteritan eta kale-antzerkia

Otsailak 9. Donostiako Alde Zaharra Napoleonen garaiko merkatu baten antzera girotuko da: kale-antzerkia, garaiko janzkeraz jantzitako jendea...

Sokamuturra

Arratsaldean, Trinitate plazan, sokamuturra helduentzat, eta behitxo eta zekorrak zein paseatzeko pottokak txikientzat.

Beste proposamen batzuk:

Zine-foruma

Napoleonen gerrek zineman izan duten tratamendua dela eta, San Telmo Museoan bi zine-emanaldi eta solasaldiak izango dira.

Ikerketa-liburua

Tarttalok argitaratutako Jose Antonio Azpiazuren "Donostiar gizartea 1813-2013" Donostiaren suntsiketari eta berreraikuntzari buruzko ikerketa-lanaren aurkezpena.

Organo-musika

Koruko Amaren Basilikako Cavallé-Coll organoaren 150. urteurrena dela eta "Lagunarteko Musika" programaren barruan, Josean Pascualen organo-kontzertua. Urtean guztira hainbat kontzertu eskainiko dira Santa Maria Basilikan, bertako organo bikainaren urtebetetzea ospatzearren.

MARTXOA

Omenaldia populazio zibilari

Mugarria: martxoaren 16a

Emakumeen Nazioarteko Eguna (hilak 8) ospatzen den hilabetean, populazio zibila, emakumeak bereziki, protagonista nagusiak izango dira, eta nabarmen egingo zaie aitortza, oro har historian eta hain zuzen gerretan ikusezin geratzen diren biktimak izaki.

Omenaldia

Emakume bat irudikatzen duen eskultura, Dora Salazarrek egina, baten ezarpena Kanoieta plazan, populazio zibilaren omenez.

Martxoaren 16a.

Kontzertuak

"Lagunarteko Musika" zikloko kontzertua Santa Maria Basilikan, Miriam Cepedaren eskutik. Loreto Aramendi Santa Maria Basilikako organo-jole titularraren kontzertua.

Hitzaldiak

Eusko Ikaskuntzak koordinatuta, urte osoan zehar eta hiriko hainbat tokitan egingo diren 9 hitzaldiko zikloaren hasiera. Historiari, gure hiriaren eta bere herritarren iraganari, orainari eta geroari, ekonomiari, gizarteari, politikari, emakumeen zereginari, garaiko ohiturei buruzko hausnarketak, eztabaidak, mahai-inguruak, eta abar. Hitzaldi hauek elkarteek, erakundeek eta hiritarrek egindako proposamenekin diseinatu dira.



"Nekazari familia", Richard Lyde Hornbrook, XIX. mendea

Bisitaldi gidatuak

Bisitaldi gidatuak abiaraziko da, bisitatzen gaituzten pertsonak bertatik bertara ezagut ditzaten hiri honen eta Bigarren Mendeurren honen toki nagusiak eta efemerideak.

dFeria- Antzerkia

Martxoaren 18tik 27ra. Antzerkiaren Nazioarteko Eguna denez (hilak 27), eta "Eraikuntzan" lelopean, 1813ko gertakariei keinu bat eginez, hondamendia gainditzeko eta berreraikitze gogo eta giza eskubideen defentsa gogoraraziko ditu.

APIRILA

1813-2013. Gazteen eta neskato-mutikoen arte-adierazpideak

Mugarria: apirilaren 20a eta 21a



Apirilean, Donostiako gazteek eta neskato-mutikoez beren sormenari bide egingo diote, denek helburu berberarekin: indarkeriari, gerrei arbuioa agertzea, 1813ko gertakariez norik bere ikuspuntua eskaintzea eta bakeaz, elkarbizitzaz, askatasunaz... dituzten nahiak aldarrikatzea.

Erakusketak

Pinturen, marrazkien eta horma-irudien erakustaldia

Giza Eskubideen aldeko haur eta gazteen IX. Pintura edizioaren baitan. Apirilaren 19tik 26ra, Victoria Eugenia Antzokiko erakustaretoan eta Okendo plazan.

200 urte geroago...

Ceinproko ikasleen erakusketa, pertsonen eta herrien berreraikitze eta gaitzetezko gogoari buruz. Ernest Lluch kultur etxean. Apirilaren 17tik ekainaren 8ra.

Jokoak

Joko tradizionalak eta kooperatiboak

Joko tradizionalen eta kooperatiboen bilketa eta berreskurapena Okendo plazan eta Bulebarrean. Ongi pasatzeko eta gure arbasoen jostatzeko eta partekatze erara bueltatzeko aukera ezin hobea. Apirilaren 20a eta 21a.

Joko kooperatiboa

"Donostiarrok. Harriz-harri". Instalakuntza elkarreragile honek gure hiria, gure historia eta bertako jendeak ezagutzeko eta deskubritzeko diziplinarteko modua proposatzen du, betiere era jostagarrian, ludikoan eta harrigarrian. Okendo plazan. Apirilaren 20a eta 21a.

Giza Eskubideen Zinemaldia. "Sustraiak etorkizunean"

Filmen eta solasaldien bidez, gerrak direla, bakea dela, pertsonen berreraikitzeko gogoia dela...

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiak egun bat eskainiko dio gogoeta eta eztabaida egiteari.

Dokumentala

"Donostia 1813, txiki-txiki egindako hiri baten historia" dokumentalaren aurkezpena.

Hitzaldiak

Omenaldia Raimundo Sarriegi maisuari

Orain 100 urte hil zela eta, San Sebastian martxaren egileari bere izena daraman plazan, bere eskulturaren aurrean, omenaldia egingo zaio. Apirilaren 23a.

Liburu eta argitalpenen aurkezpenak

Donostiaren historiari buruzko liburuak, argitalpenak eta bibliografia.



MAIATZA

Hiritarren energia olatuak Zubietara

Mugarria: maiatzaren 26a

2013ko Olatu Talkaren olatu handiaren "gaina" (maiatzaren 25 eta 26an) 1813an kokatuko da, betiere 2016ari eta gure hiritar energiaren olatuen etorkizunerako proiektioari begira.

Oinezkoen martxa Zubietara

Olatu Talkaren aktibitate askoren artean, milaka hiritar abiatuko dira, arian-arian eta oinez, hainbat auzotatik helmuga berberera: Zubietara auzategiko Aizpurua baserrira, hantxe ebatzi baitzen hiriaren berreraikuntza. Maiatzaren 26an.

Kontzertua

"Lagunarteko Musika" organo zikloan, Santiago Quemadak Koruko Amaren Basilikan joko du.

Hitzaldiak eta mahai-inguruak

Bisitaldi gidatuak

Donostiarrentzat eta turistentzat.

Sariak

Koldo Mitxelena Literatura Lehiaketako eta "Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Pinturako" sarien banaketa. Oraingo honetan, Bigarren Mendeurrenaren espirituaz bat eginik, lehiaketa biak batu egin dira, neskato-mutikoen eta gazteen idazlanei eta artelanei ikusgaitasun handiagoa ematearren, batu ere.

Maiatzaren 12an, Victoria Eugenia Antzokian.



Erakusketa

"Hasiera bat izan zen bukaera bat: Donostia, 1813ko uztaila-abuztua. Eguneroko bizimodua garai hartan". Erakusketa ibiltaria Donostiako kultur etxeetan; gaia: nola bizi ziren donostiarrek 1813 inguruan, nolako sentimenduak zituzten eta nolakoak ziren haien arteko harremanak. Begirada bat donostiarren barne-barneko historiari.

Kongresua

Suhiltzaileen Nazioarteko 24. Kongresua. Duela 200 urte suak suntsitutako Donostiak mundu osoko suhiltzaileak bilduko ditu.

EKAINA

Bake Ituna

Mugarria: ekainaren 28a



Egilea: Lolo Vascos

Uda hasten den hilabete honetan, gogoratzeko, ezagutarazteko, elkartrukatzeko, kiroltasunez lehiatzeko, solasean aritzeko, dantzatzeko, amets egiteko... aktibitatez blai dator programazioa.

Erakusketak

"2013-2016 Bake Ituna"

San Telmo Museoan. Kulturaren Hiriburuaaren aktibitateen baitan egingo den erakustaldi handia. Gerraren eta bakearen irudikapenak artearen historian. Inaugurazioa ekainaren 28an izango da.

Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko irudien erakusketa

Atzoko eta gaurko Donostia iruditan. Bulebarrean.

Argi-, soinu- eta musika-ikuskitzuna

Alderdi Ederren. Udari bestela ekiteko, jende pilarentzako ikus-entzunezko apustu harrigarria. Musika, poesia, ehun erraildoiren konzentrazioa, kontzertuak, ...

Kontzertuak

Big-bands

Gasteizko, Baionako eta Donostiako musika-eskolen big-band delakoen kontzertua.

Kontzertua: 150. urteurrena

Santa Maria Basilikako Cavaillé-Coll organoarena, ekainaren 9an. Cavaillé-Coll organoaren inguruan erakusketa batekin osatuko da.

“Lagunarteko Musika” zikloko kontzertua

Norbert Itrich organo-jolearen eskutik, Santa Maria Basilikan.

Organo-kontzertua

Ana Belen Garcia Santa Mariako organo-jole titularren eskutik.

Euskal Pilotaren Udaberriko Jaia

Pilotaren inguruan hainbat ekitaldi: erakusketak, eskulangintza, erromeria, garai hartan jokatzen zuten pilotako modalitate desberdineko pilota-partiduak; Paxaka, Laxoa, Bote Luzea.

San Joan bezpera

San Joan bezperako festa hainbat auzotara zabalduko da. Ohiko su-metek esanahi berezia izango dute. Dantza tradizionalekin osatuko dira: **soka-dantza, ohorezko aurrekua, kalejirak, erromeria...**

Udako ikastaroak

UPV/EHUko Udako Ikastaroek Napoleonen gerrei eta Donostiaren eraso, erreketak eta suntsipenari eskainitako lehen zikloa.

Hitzaldiak

Solasaldiak, hiriaren historia, oraina eta etorkizunari buruz.


Bisitaldi gidatuak

Anekdoten ziprztindutako ibilbide historikoak hirian barrena, non gidariak adineko pertsonak izango diren, beren eskarmentuak eta ezagutzak eskaintzen dituztelarik.

UZTAILA

Itsasoari zelatan

**Mugarria: uztailaren
20a eta 21a**



"Donostia", Edward Hawke Locker, 1823

Itsasoak protagonismo handia izango du; hain zuzen, XIX. mendean izan zuenaren eta gaur egun duenaren antzera: itsasoa beti itsaso, gerra-zelai dela, aberastasun-iturri dela, komunikabide eta elkarbide dela.

Itsasontzien kontzentrazioa

Belaontziz, batelez, piraguez, kanoez, paddle-surf eta wind-surf oholez, eta abarrez beteko da badia, Santa Klara uharteraino. Gauez, itsasontziek itsasoa eta badia argituko dituztelarik, hiria suntsitu zuen sutea ekarriko dute gogora. Aquariumaren kolaborazioarekin.

Bibak egitea Urgull mendian

Itsasontzien kontzentrazioaren ondoren, primerako aukera izango da Urgull mendian bibak bat antolatzeko, musikaz eta txokolatadaz... Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarra esker jaki hark berebiziko garrantzia izan baitzuen Donostiaren ekonomian.

Erakusleihoen lehiaketa

1813ko garaiari eta espirituari buruz.

Merkatua

Artisautza eta zaharberritze-lanak, aktibitate ludikoak, jokoak, musika eta kale-antzerkia, lanbideak eta moda.

Erakusketak

“Donostia 2013”

Koldo Mitxelena Kulturunean ikusgai paratuko da arte garaikidearen erakusketa bat, Portugal, Ingalaterra, Frantzia eta Espainiako artisten lanek osatuta.

“Gipuzkoa, Napoleonen gerrak”

Untzi Museoan.

Bisitaldi gidatuak

Hirian barrena.

ABUZZTUA

Donostia, suak markatua

Mugarria: abuztuaren 31



Argazkia: Donostiako Orfeoia

Donostiaren erreketaren 200. urteurrena betetzen den eta aldi berean Aste Nagusiarena den hilabete honetan, oroitzapenerako, elkartasunerako, gogoeta isilerako tarteak izango dira, bai eta udako festen dibertsiorako ere.

Abuztuaren 31: 200 urte Donostia arpilatu, erre eta suntsitu zutela.

Hiriaren suntsipenaren oroitzak, biktima guztien ezagutzak eta elkartasunak goia joko dute abuztuaren 31n.

2013an, lehengo Trinitate kaleko ohiko **kandelen piztuera** biktimen omenez, **danborradak** lagun, eukaristia Santa Maria Basilikan, Orfeoi Txiki eta guzti aktibitatez osatuko dira, berriro ere hainbat elkarteren, erakunderen, instituzioren eta oro har herritarren laguntza aktiboari esker.

Duela 200 urteko **tragediaren berregintza** Alde Zaharrean eta herritarrez osatutako **antzerkia**.

Kontzertuak

Donostiako Orfeoiaren kontzertua

Santa Maria Basilikan. Manuel Sagastiren Requiem Meza eta Jose Maria Usandizagaren “Abuztuaren 31” himnoa interpretatuko dituzte, beste pieza batzuen artean.
Abuztuak 30.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak

Donostiaren efemeride hau oroitarazteko propio hautatutako errepertorio bat eskainiko du, aire zabaleko kontzertu batean (Konstituzio plazan).
Abuztuak 30.

Doluzko kanpaien joaldia Santa Maria basilikan eta San Bizente elizan

Abuztuak 31.

Musika Hamabostaldia

Kontzertua Kursaal: Mahleren 2. Sinfonia, “Berpiztea”, eta aita Madinaren “Aita Gurea” interpretatuko dituzte.

Musika Hamabostaldiko **Hamabostaldi Ibiltaria**. Zubieta eta Usurbil arteko kontzertu ibiltariak.

150. urteurrenaren musikaldia

Santa Maria Basilikako organo zoragarri honen inguruan zazpi kontzertu eta zenbait hitzaldi.
Abuztuaren 11tik 17ra.

Dantza

Verdini Dantza Taldeak eta Kresalak Bigarren Mendeurrenaren oroitzeko egiteko berariaz sortutako emanaldiak aurkeztuko dituzte, sekulako eszenategian, aurkeztu ere: Pasealeku Berrian, Jorge Oteizaren eskulturaren parean.
Abuztuak 30.

Pilota

Trinitate plaza eta Zubieta artean dauden frontoietan hainbat pilota-partidu jokatu dira (Trinitate plaza, Antigua, Ibaeta, Añorga eta Zubieta).

Jaiak. Aste Nagusia

Oroitzaren alderdi tragikoaren kontrapuntuan, Aste Nagusia (10-17). Donostiako udako festen programazioak hainbat ekitaldi biltzen ditu, beti jai giroan partekatze eta disfrutatzeko; hala nola, su artifizial oso bereziak, barrene herrikoia, elkarte gastronomikoen marmitako lehiaketa, gizonen eta emakumeen pala-txapelketa, pilota jaialdiak eta ikastaroak...

Udako ikastaroa

1813-2013ri buruzko bigarren zikloa UPV/EHUko Udako Ikastaroetan.

IRAILA

Donostia, biziberriturik

Mugarria: irailaren 7a eta 8a

Irailaren 8an 200 urte beteko dira hiriaren suntsiketaren biktimen ordezkariak, Zubieta auzategiko Aizpurua etxean bilduta, Donostia berreraikitze gogo irmoa adierazi zutela.



"Aizpurua etxea", Laureano Gordon Montaña

Hainbat aktibitate gauzatuko da pertsona haien lana ezagutarazteko eta goraipatzeko, hiria erabat lur jota egon arren hiria birsortzeko eta gaur egungo Donostiaren oinarriak ezartzeko adorea eta kemena erakutsi zuten eta.

Zubietan egun haren oroitza egiteko aktibitate askoren artean, hona hemen nabariak:

Omenaldia

Dominen emakida Zubietako sinatzaileen ondorengoei, lore-eskaintza euskal dantzarekin, txistulariak eta errebotte partiduak Zubietako frontoian.

Zubietako Akten irakurketa kolektiboa

Zubietako Aizpurua oinetxean, hantxe sinatu baitzen hiria berreraikitzea ebatzi zuen dokumentua.

Elkarbizitzaren aldeko Herritarren Ituna

Elkarbizitzaren aldeko Herritarren Itun baten sinatzea: herritarren konpromiso solidarioa izango da, gaur egungo krisialdian murgildurik, ikararen eta etsipenaren gainetik elkarrekin lan egitea deliberatu zuten lagun haiek gogoan hartuta.

Pilota

Trinitate plaza eta Zubieta artean dauden frontoietan hainbat pilota-partidu jokatu dira (Trinitate plaza, Antigua, Ibaeta, Añorga eta Zubieta).

Honez gain:

Bozkariozko kanpai-errepika

Santa Maria Basilikak eta San Bizente elizak bat egingo dute bozkariozko kanpai-errepikan, hiria berreraikitzeke ebazpena ospatzeko asmotan. Irailaren 8an Gaztelu Eguna ospatuko da.

Berregintza historikoa

Hegoaldeko eta Iparraldeko elkarteen lagunarteko bazkaria eta guzti, Senperen (Lapurdin).

“Euskal Eurohiriaren etorkizuna” Foroa

Hirien Foroak Euskal Eurohiria, eurohiritartasuna, hiriaren nazioartekotzea eta halako gaiak jorratuko ditu.

Dokumentala

“Donostia: azken 200 urte honetako kronika soziala” dokumentalaren aurkezpena, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren kolaborazioarekin.

Kizki Eguna

Sagarrak biltzeko erabiltzen zen lanabesaren, Kizkiaren, lagun kopuruaren marka hausten saiaturako da Donostia, baita tresna horrekin jasotako sagar kopuruaren marka ere.

URRIA

Iraganetik etorkizunera

Mugarria: urriaren 17a eta 18a



Argazkia: OSE.

Donostia bezala, suntsipen eta indarkeriazko iragana gainditzeko gauza izan garen zenbait hiriren iragan komuna eta etorkizun partekatua ditugu protagonista urrian. Bai eta gazteen, neskato-mutikoen eta helduen itxaropen partekatua ere, gogoratzeko eta aurrera egiteko beren ahotsak eta lekukotzak elkartuko baitituzte.

Kongresua

Gerrak suntsitutako Hirien Nazioarteko Topaketa. Berrehun urteko suntsipena Europan: etorkizunerako ikasgai? Azken 200 urte honetan Europa sakailatu duten gerrek suntsitutako hirien topaketa bat, betiere europar hiritartasun berri bat sortzeko mezu positiboa igorrita, elkarrizketa proposatuko baita gure gatazkak konpontzeko modu egokitzat. 2020 Plan Estrategikoa Bulegoak antolatuta.

“200 urte” abesbatza

Easo Abesbatzako 200 neska-mutil eta gazteen kantata, Alde Zaharreko zenbait tokitan: San Telmon, Santa Marian eta Konstituzio plazan.

Adineko pertsonen bizipenak kontatzen dituen dokumental autobiografikoa

1813ko gertakariei buruz arbasoek kontatutako testigantzak entzun zituzten adineko pertsonen anekdotak, bizipenak eta istorioak berreskuratzeko bideo-dokumental baten aurkezpena.

Kontzertua

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Kursaal. EOSen abonuko kontzertuen baitan, hainbat pieza, “Suntsiketa, memoria eta berreraikuntza” titulupean bilduta.

AZAROA

Hiriaren garapena

Mugarria: azaroaren 21a



Azaroa, Bigarren Mendeurrenak aurrera egiten duenez gero, gehienbat aurrera, etorkizunera, hiriaren garapenera begiratzeko hilabetea ere bada.

Erakusketak

“Hiriaren garapena arkitekturaren ikuspegitik”

Hiriak azken 200 urte honetan izan duen bilakabide urbanistikoari buruzko erakusketa. Pedro Manuel de Ugartemendia hiriaren berreirakuntzaren arkitektoari esker ona.

Ikus-entzunezkoa

“Donostia 1813-2013” Urgulleko Historiaren Etxean, teknologia berrietan eta herritarren partaidetzan oinarrituta; izan ere, umeez, gazteek eta adin guztietako pertsonen Donostiako iraganari, orainari eta etorkizunari buruz dituzten testigantzak, ideiak eta gogoetak jasoko dira.

Kontzertuak

- Kontzertua Santa Marian, Alize Mendizabal organo-jole titularraren eskutik.
- Santa Mariako organoaren 150. urteurrenaren kontzertua, Esteban Landarten eskutik.

Herritarren partaidetza

Topaketak: "Auzolana eraikitzen", gure hiriko auzolanen inguruan.

Euskarari buruzko gidaliburua

Donostia 1813-2013. Euskararen egoerari eta azken 200 urte honetan euskarak Donostian izan duen bilakabideari buruzko gida. Euskaraz idatzitako testigantzen bilketa, 1813ko testuen antologia, garaiko planoak eta azken 200 urte honetako hizkuntza-normalizazioaren bilakabidea. Euskara Zerbitzuak sustatua.

ABENDUA

Giza Eskubideek batutako hiria

Mugarria: abenduaren 10a

Bigarren Mendeurrena bukatzeko, giza eskubideei, haien defentsa eta aldarrikapenei, zabal begiratuko zaie. Izan ere, hiri honetan eta mundu osoan egunero kontuan hartu beharreko balio unibertsalak diren Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren hilabetea abendua baita.

Ez da ahaztuko Eguberria, Santo Tomas Euskararen Eguna ere hilabete berean direla.

Erakusketa

“René Cassin, bakea, eskubide”

René Cassin (Baiona, 1887) izan zen 1948ko abenduaren 10ean onetsi zen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren idazle nagusia. Hari eskainiko zaio, bada, Aieteko Kultur Etxean, Baionako Udalarekin batera Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak antolatutako erakusketa. Abenduaren 10ean inauguratuko da, egun horrexetan ospatzen baita Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna. Donostian ikusgai egon ondoren, Baionara eramane da.



Erakusketa: “XIX. hasierako baserri giroa”

1813 inguruan Donostiako eguneroko bizimoduari buruzko erakusketa.

Gastronomia

Alde Zaharra sagardotegi erraldoi bilakatuta, garaiko sagardotegien berregintzak egingo dira, eta gure edari jatorra txotxean dastatzeko aukera izango da.

Kontzertuak

Eguberriko Kontzertua

Loreto Aramendi, Ana Belen Garcia eta Alize Mendizabalen eskutik, Santa Maria Basilikan.

Donostiako Musika eta Dantza Eskolako **kontzertuak hiriko adineko** zentroetan.

Euskara. Abenduak 3. Euskararen Eguna

Hainbat aktibitate antolatuko dira gure hizkuntzaren inguruan.

Eguberria

Aurten “Gabonak zuretzat” programa, ezbairik gabe, XIX. mendeak kutsatuta agertuko da.


Bigarren Mendeurrenaren programazioa, atalka

Bigarren Mendeurrenaren programak bere baitan hartu ditu hiriaren erreketak, suntsipena eta ondorengo berreraikuntza oroitarazteko herritarrek 2012an aurkeztutako 390 proposamenetatik gehienak. Aktibitate bat baino gehiago kategoriatan baino gehiagotan txerta litezke, diziplina anitzeko izaera dutenez; beste batzuek, aldiz, proposamen bat baino gehiago biltzen dituzte beren baitan. Hori bai, guztiek dute helburu bera: ilusioa piztea, donostiarrentzako partaidetza-guneak sortzea, turista gehiago erakartzea eta mugarririk garrantzitsua izatea 2016an Europako Kultur Hiriburuaren programan.

Aktibitateok gauzatzeko eszenategiak asko eta asko dira; hala nola, San Telmo Museoa eta Urgulleko Historiaren Etxea, kultur etxeak, Aquariuma, Untzi Museoa, Koldo Mitxelena

Kulturunea, Koruko Santa Maria Basilika. Beste ekinbide asko, aldiz, hiriko kaleetan ospatzeko pentsatuak daude: portuan, Bulebarrean, Konstituzio Plazan, Uhartean, Urgullen, Zubietan eta beste auzoetan.

Programaren baitan badira aktibitate akademikoak eta gogoetarakoak, historikoak, sinbolikoak edota jai girokoak. Aktibitateetako batzuek Donostiako festa peto-petoak goratzen dituzte. Beste batzuk berri-berriak dira; esaterako, himno berri bat sortzeko lehiaketa. Belaunaldien arteko programazio bat da, Bigarren Mendeurrenaren oroitzapenak inspiratzen duten balioak aintzat hartzen dituen eta itsasoaren garrantziari eta Zubietaren eta auzoen arteko harremanari bereziki erreparatzen diena.



Hona hemen, laburbilduta.

ARGITALPENAK ETA LITERATURA-EKIMENAK:

- “Efemerideak: hiriaren sutearen eta berreraikuntzaren bigarren mendeurrenean”, Rafael Aguirre Francoren liburua. Kutxa Fundazioak argitaratuta.
- Jose Antonio Azpiazuren “Donostiar gizartea 1813-2013” ikerketa-lana. Ttartalo Argitaletxea.
- Giza eskubideen aldeko haur eta gazteen IX. Pintura ediziora eta Koldo Mitxelena Literatur Sarira aurkeztutako lanen agitalpena.
- 1813ari, hiriaren historiari eta dagoen bibliografiari buruzko liburuak, aldizkariak eta argitalpenak.

12 ERAKUSKETA:

- Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko IX. Pintura edizioa.
- “200 urte geroago...” Ceinproko ikasleen erakusketa, Ernest Lluch Kultur Etxean.
- “Hasiera bat izan zen bukaera bat: Donostia, 1813ko uztaila-abuztua. Eguneroko bizimodua garai hartan”. Erakusketa ibiltaria Donostiako kultur etxeetan.
- “2013-2016 Bake Ituna”, San Telmo Museoa.
- Gipuzkoako Argazkilari Elkarte irudien erakusketa. Bulebarrean.
- Santa Maria Basilikako Cavaillé-Coll organoaren 150. urteurrenari buruzko erakusketa.

- “Donostia 2013”, Koldo Mitxelena Kulturunea.
- “Gipuzkoa, Napoleonen gerrak”, Untzi Museoa.
- “Hiriaren garapena arkitekturaren ikuspegitik”.
- “Donostia 1813-2013”, Urgulleko Historiaren Etxean.
- “René Cassin, bakea, eskubide”, Aieteko Kultur Etxean.
- “XIX. hasierako baserri giroa”. 1813 inguruan Donostiako eguneroko bizimoduari buruzko erakusketa.

HERRITARREN ARTEKO 16 TOPAKETA ETA HITZALDI:

- Eusko Ikaskuntzak koordinatutako hitzaldiak.
- Suhiltzaileen Nazioarteko 24. Kongresua.
- UPV/EHUko Udako 2 Ikastaro.
- “Euskal Eurohiriaren etorkizuna” Foroa.
- Gerrak suntsitutako Hirien Nazioarteko Topaketa. Berrehun urteko suntsipena Europan: etorkizunerako ikasgai?
- “Auzolana eraikitzen” topaketa.
- ‘Beka: 1813-2013: Emakumeak nola joan garen eskuratzen gure espazioa danborradan’.

28 KONTZERTU ETA DANTZA-EMANALDI:

- “San Sebastián aurreko kontzertua”, Donostiako Txistularien Udal Bandak eta Eskola Gurutzia Abesbatzak eskainia.
- Baionako eta Donostiako musika-eskolen big-band delakoen kontzertua.

- Verdini Dantza Taldeak eta Kresalaren emanaldia Pasealeku Berrian.
- Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren aire zabaleko kontzertua.
- Donostiako Orfeoien kontzertua Santa Maria Basilikan. Besteak beste, Manuel Sagastiren eta Jose Maria Usandizagaren lanak interpretatuko dituzte.
- Musika Hamabostaldiko kontzertua Kursaal: Mahleren 2. Sinfonia, “Berpiztea”, eta aita Madinaren “Aita Gurea” interpretatuko dituzte. Hamabostaldi Ibiltaria. Zubieta eta Usurbil arteko kontzertu ibiltariak.
- “200 urte” abesbatza: Easo abesbatzako 200 neska-mutil eta gazteen kantata Donostiaren omenez.
- Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Kursaal, “Suntsiketa, memoria eta berreraikuntza” lana.
- Donostiako Musika eta Dantza Eskolako kontzertuak hiriko adineko zentroetan.

Hauetako 18 kontzertu Santa Maria Basilikako Cavaillé-Coll organoaren 150. urteurrenarekin lotuta daude:

- “Lagunarteko Musika” programaren barruan, Josean Pascualen organo-kontzertua. “Lagunarteko Musika” zikloko kontzertua Santa Maria Basilikan, Miriam Cepedaren eskutik.

- Loreto Aramendi Santa Maria Basilikako organo-jole titularraren kontzertua.
- "Lagunarteko Musika" programa, Santiago Quemadaren kontzertua.
- "Lagunarteko Musika" zikloko kontzertua, Norbert Itrich organo-jolearen eskutik.
- Organo-kontzertua, Ana Belen Garcia Santa Mariako organo-jole titularraren eskutik.
- Santa Maria Basilikako organoaren 150. urteurrenaren musikaldia: 7 kontzertu.
- Kontzertua Santa Marian, Alize Mendizabal organo-jole titularraren eskutik.
- Santa Mariako organoaren 150. urteurrenaren kontzertua, Esteban Landarten eskutik.
- Eguberriko Kontzertua, Loreto Aramendi, Ana Belen Garcia eta Alize Mendizabalen eskutik, Santa Maria Basilikan.

BISITALDI GIDATUKO 6 ZIKLO:

- Bisita gidatuak herritarrentzat.
- Bisita gidatuak bisitatzeko gaituzten pertsonentzat.

IKUS-ENTZUNEZKO 5 EMANALDI:

- 2 zine-foruma San Telmon.
- Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia.
- "Donostia 1813, txiki-txiki egindako hiri baten historia" dokumentala.
- "Donostia: azken 200 urte honetako kronika soziala" dokumentala.

- Adineko pertsonen bizipenak kontatzen dituen dokumental autobiografikoa.
- Zinemaldia.

5 OMENALDI:

- Danborraden omenaldia herritarrei San Sebastian egunaren bezperan.
- Omenaldia populazio zibilari. Emakume bat irudikatzen duen eskultura, Dora Salazarrek egina, baten ezarpena Kanoietako plazan.
- Omenaldia Raimundo Sarriegi maisuari orain 100 urte hil zela eta.
- Omenaldia Zubietako sinatzaileen ondorengoei.
- Santa Maria Basilikako organoaren 150. urteurrenaren ospakizuna.

3 ANTZEZPEN ETA BERREGINTZA HISTORIKO:

- dFeria "Eraikuntzan" lelopean.
- Abuztuaren 31ko tragediaren berregintza.
- Berregintza historikoa Senperen.

8 EKINTZA FESTAK ATALEAN:

- San Sebastian egunaren bezpera: danborraden kontzertu-deia, dantzarien eta txistularien emanaldia, "Donostiako Antzinako Himnoa"-ren interpretazioa, kantu-jira...

- XIX. Mendean giroturiko inauteriak: Napoleonen garaiko merkatua, kale-antzerkia, sokamuturra...
- San Joan bezpera: ohiko sua, dantza tradizionalak, kalejirak, erromeria...
- Argi-, soinu- eta musika-ikusketak Alderdi Ederren. Musika, poesia, kontzertuak eta ehun erraldoi eta buruhandi baino gehiagoko desfile bat.
- Itsasoko asteburua: itsasontzien kontzertuak badien, iluminazio berezia, merkatua, erakusleihen lehiaketa...
- Bibak Urgull mendian.
- Aste Nagusiaren ekintzen errefortzua: su artifizial bereziak, barrene herrikoia, elkarte gastronomikoen marmitako lehiaketa, gizonen eta emakumeen pala-txapelketa...
- Eguberria.

ABUZTUAREN 31REKIN ETA IRAILAREN 8AREKIN ZUZENKI LOTUTA DAUDEN EKINTZAK:

- 1813ko Abuztuaren 31ren oroitzak: danborradak, eukaristia, berregintza historikoa eta herritarrez osatutako antzerkia, kandelen piztuera, doluzko kanpaien joaldia...
- Zubietako Akten irakurketa kolektiboa, Zubietako sinatzaileen ondorengoei omenaldia, Elkarbizitzaren aldeko Herritarren Ituna, Bozkariozko kanpai-errepika...
- Gaztelu Eguna.

EUSKARA:

- Gidaliburua “Euskara Donostia: 1813-2013 Gida. Euskararen egoera eta bilakaera Donostian azken 200 urtetan”.
- Euskararen Eguna.

2 EKINTZA JOKUAK ATALEAN:

- Instalakuntza elkarreragile “Donostiarrok. Harriz-harri”.
- Joko tradizionalen eta kooperatiboen bilketa eta berreskurapena.

KIROL-JARDUNALDIAK:

- Euskal Pilotaren Udaberriko Jaia. 1813an jokatzeko zuten pilotako modalitate desberdineko pilota-partiduak.
- Pilota partiduak Trinitate plazako, Antiguako, Ibaetako, Añorgako eta Zubietako frontoietan.
- Itsasoko asteburua ur-ekintzekin.

GASTRONOMIA:

- Kizki Eguna.
- Bazkari-solasaldiak elkarte gastronomiko desberdinetan.
- Senidetasun bazkaria Senperen.
- Txokolatearekin eta Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarrarekin lotuta dauden ekintzak.
- Garaiko sagardotegien berregintzak eta txotx.

2016:

- Olatu Talka.

Ekintzak egingo diren lekuak

Bigarren Mendeurrenaren programazioaren ekintzak hainbat leku adierazgarritan gauzatuko dira.

- | | | |
|---|---|--|
| • Abuztuaren 31 kalea eta alde zaharreko beste kaleak | • Hiriko auzoak | • Santa Maria Basilika |
| • Aiete Kultur Etxea eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea | • Irla | • Senpere |
| • Alderdi Eder | • Kaia | • Trinitate plaza |
| • Aquariuma | • Kanoieta plaza | • Trinitate plazako, Antiguako, Ibaetako, Añorgako eta Zubietako frontoiak |
| • Badia | • Koldo Mitxelena Kulturunea | • Untzi Museoa |
| • Bretxa | • Konstituzio plaza | • Urgull mendia |
| • Bulebarra | • Kursaal | • Usurbil |
| • Donostiako Udaletxea | • Miramar Jauregia | • Victoria Eugenia Antzokia |
| • Elkarte gastronomikoak | • Okendo Kultur Etxea | • Zubietako |
| • Ernest Lluch Kultur Etxea | • Okendo plaza | • Etab. |
| • Gipuzkoa plaza | • Pasealeku Berria | |
| • Hiriko adineko zentroak | • San Bizente Eliza | |
| | • San Telmo Museoa/Urgull Mendiko Historiaren Etxea | |

1813-2013 Bigarren Mendeurrenaren parte-hartzaileak

Bigarren Mendeurrenaren programazioa lankidetzan egindako proiektu kolektibo eta parte-hartzaile baten emaitza da. Hainbat elkartek, erakundek, instituziok eta herritarrek parte hartu dute.

Ados Teatroa	Bildu Udal Taldea/ Grupo Municipal Bildu	Donostiako Udala Berdintasuna/ Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián
Aiert Beobide	Ceinpro	
Aieteko Auzokideon Elkartea Lantxabe/ Asociación de Vecinos de Aiete	Club Deportivo Vasconia	Donostiako Udala Hirigintzako Zuzendaritza/ Dirección de Urbanismo del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián
Alberto de la Hoz	Coro Easo/Easo Abesbatza	
Alberto Martínez López	Cristina Enea Fundazioa/ Fundación Cristina Enea	
Alde Zaharra Kirol Elkartea	Demagun Hausnarketarako Taldea	Donostiako Udala Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza/ Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.
Alfonso Picabea	Donostia Kirola	
Amigos del Órgano Cavallé-Coll de la Basílica de Santa María	Donostia Kultura, Festak, Musika, Udal Liburutegiak, Zinema, Antzerkia, San Telmo Museoa/ Donostia Kultura, Fiestas, Música, Biblioteca Municipal, Cine, Teatro, Museo San Telmo	Donostiako Udala Partaidetza/ Departamento de Participación del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián
Antonio Mendizabal Etxeberria		
Aranzadi Zientzia Elkartea/ Sociedad de Ciencias Aranzadi		
Arkaitz Bastida		
Asociación Cultural Conmemoración 31 de Agosto 1813	Donostia 2016	Donostiako Udalaren Txistulari Banda/ Banda Municipal de Txistularis de San Sebastián
Asociación Cultural Urgull Histórico	Donostia Zinemaldia/ Festival de San Sebastián	
Asociación en Defensa del Patrimonio Cultural de San Sebastián y Gipuzkoa	Donostiako Aquariuma/ Aquarium de San Sebastián	Donostiako Estrategia Bulegoa/ Oficina de Estrategia de Donostia/San Sebastián
Asociación Española de Lucha contra el Fuego	Donostiako Udala Euskara Zerbitzua/ Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián	Donostiako Musika Hamabostaldia/ Quincena Musical de San Sebastián
Asociación Filatélica y Numismática Guipuzcoana	Donostiako Udala Gizarte Ongizatea/ Departamento de Bienestar Social del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián	Donostiako Musika eta Dantza Eskola/ Escuela de Música y Danza de Donostia/San Sebastián
Asociación Itzurun		
Baionako Udala/ Ayuntamiento de Baiona		Donostiako Orfeoia/ Orfeón Donostiarra

Donostiako Sustapena/ Fomento de Donostia/San Sebastián	Gipuzkoako Argazkilari Elkartea/ Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa	Kmg. S.L. Koldo Mitxelena Kulturunea
Donostia Turismo/ San Sebastián Turismo	Gipuzkoako Belenzaleen Elkartea/ Asociación Belenista de Gipuzkoa	Koma Zerbitzu Kulturalak, S.L. Kresala Euskal Dantza Taldea
Donostia Sutan 1813-2013	Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa/ Asociación Guipuzcoana de Pelota Vasca	Kutxaren Gizarte Ekintza/ Obra Social de Kutxa K6 Gestión Cultural
Donostiako Udalaren Artxiboa	Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Gazteria eta Kirola Departamentua/ Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa	Le Journal du Pays Basque – Euskal Herriko Kazeta Lúdere
EAJ/PNV Udal Taldea/ Grupo Municipal EAJ/PNV	Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea/ Asociación de Sidrerías de Gipuzkoa	Luis Manuel Etxeberria Urretabizkaia Luis Peralta
Ereiten Kultur Zerbitzua	Gondolin Gipuzkoa Klub	Manuel Barrenetxea Bujanda María José Parker
Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa/ Archivo Vasco de la Música Eresbil	Gure Gipuzkoa	Medikuntza Historiaren Euskal Museoa/ Museo Vasco de Historia de la Medicina
Eskola Gurutzia Abesbatza/ Coral Gurutzia Eskola	Info Zazpi Irratia	“Miguel de Aranburu” Gipuzkoako Historialarien Elkartea/ Asociación de Historiadores Guipuzcoanos “Miguel de Aranburu”
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa	Iñaki Egaña	
Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala/ Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro	Iván Osuna	
Euskal Herriko Bilgune Feminista	Jason Hawkes	
Euskal Herriko Unibertsitatea- Uda Ikastaroak/ Universidad del País Vasco- Cursos de Verano	Javier Sada	Mikel Ubillos Salaberria
Eusko Ikaskuntza–Sociedad de Estudios Vascos	Jesus Ausejo	Morgan Creativos
Felix Garitano	Jokin Ubiria Recalde	Nabarralde
Fermín Muñoz	José Antonio Azpiazu	Pablo Balenciaga
Fernando Hierro	José Manuel Alamán Citoler	Parte Zaharrear Bizi Auzo Elkartea
Filmotek Tolare_Audio_Visual	Josetxo Fernández	Piter Ansorena
Formattoo Media	Juan Otegui	PP Udal Taldea/ Grupo Municipal PP
Fundación Eduqual	Julián Rodríguez. Gaindizen	Producciones A Medida .S.L
General de Producciones y Diseño S.A.	Kaabestri	

PSE-EE Udal Taldea/
Grupo Municipal PSE-EE

Orfeoi Txiki

Rafael Aguirre Franco

Rafa Hernández

Ramón Guirao Larrañaga

Ricardo Okaranza Saez de
Arregui

Sociedad Bicentenario

Sociedad Kainoieta Comisión 31
de Agosto 1813

Syntorama

Tamborradas de mayores e
infantil

Tanttaka Teatroa

Tomas Hernández Kortadi

Toti Martínez de Lezea

Trastienda de Eventos

Ttartalo Argitaletxea

Udal Informatika Zentrua/
Centro Informático Municipal

Unión Artesana Elkartea/
Sociedad Unión Artesana

Untzi Museoa - Museo Naval
de Donostia/San Sebastián

Verdini Dantza Taldea

Vicente Zaragüeta

Xabier Ezeizabarrena

Xabier Kerexeta. Kalegoi

Zehazten Zerbitzu Kulturalak

Zorroaga Fundazioa/
Fundación Zorroaga

Zubietako Herri Batzarra

Zumalakarregi Museoa-Museo
Zumalakarregi

